

noaua



**Neguko lehen
denboraleak hainbat
arazo eragin zituen**

**Enplegua sustatzeko
bi ebazpen kaleratu
ditu Udalak**



Jon Hernandez:

**“Irratian, kirol kazetari lanetan
ikusten dut neure burua”**



ATEZAIN EDO BIDEOATEZAIN DIGITALAK
OBRARIK GABE!



6855 zenb. telekomunikabide erregistroan
elkano kalea 13 HERNANI 943 55 33 99 - 629 12 13 55

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea zabalik

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera,
Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Memoria lantzeko
joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak.
Geografia. Historia eta historiarekin erlazionaturako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **EUSKARA TAILERRA (MAILA 1 ETA 2)**
- **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08

AR-DESIGN

**AUTO-TAILERRA · AUTOEN KONPONKETA
·MEKANIKA · MARKA GUZTIAK ·PRE-ITV ·GURPILAK**

**·KAMPER FURGONETA ETA AUTOKARABANENTZAKO
OSAGARRIAK ETA INSTALAZIOAK**

**·ZURE FURGONETA KAMPER BIHURTZEKO
AHOLKULARITZA, OSAGARRIAK ETA INSTALAZIOAK**



633 12 44 00



OSINALDE POLIGONOA Ondarzulo, 11 USURBIL info@ar-design.eus www.ar-design.eus

Albisteak iruditan

“Isturitzetik Tolosan barru”, Joxan Artzerekin

Iñaki Urruzolak eta Iratxe Retolazak “Isturitzetik Tolosan barru” ikus-entzunezko lana aurkeztu zuten igandean, Sutegin. Urtarrilaren 12an Joxan Artzeren heriotzaren bosgarren urterrena izanik, Joxan Artzeren lan honen ikus-entzunezko omenaldia aurkezteko aprobetxatu zuten.

Garai baten lekukotza

Joxan Artzeren obra ezagutzera emateko asmoz prestatu zuten ikus-entzunezko hau Usurbilgo Udalaren laguntzarekin. “Isturitzetik Tolosan barru” poema liburua du oinarri lanak, artistaren lehen emaria izanik, orduko Euskal Herriko giroaren eta garaiaren lekukotza jasotzen du.



Joxan Artzeren obra esanguratsua ezagutzera eman asmoz osatu dute ikus-entzunezkoa.

Laburrean

Kantu-jira bueltan

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak antolatutako kantu-jira bueltan izango dugu urtarrilaren 28an. 12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Ez ahaztu kantu-liburuxka. Gogoan izan astelehenero 18:00etan Udarregiko Agerialde eraikinetako musika gelan entseatzeko dutela.

Sareren mobilizazioa

Astebete barru urtarrileko azken ostirala izango da. Eta halakoetan, Usurbilgo Sarek elkarretaratzea deitu ohi du Mikel Laboa plazan, euskal preso politikoen eskubideen defentsan. Aurtengo lehena hortaz, hilaren 27an izango da, iluntzeko 20:00etatik aurrera aipaturiko plazan.

Inauteri Jaia

Otsailaren 18an ospatuko dugun Inauteri Festa egunean, zertaz moztortu nahi zenukete? Aurtengo edizioeko gaia zuen esku! Bideotatik proposa dezakezue moztortzeko gaia:

Emaila: elkartea@noaua.eus

Whatsapp mezua: 688 807 336.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala



Euskal Herria!



Ainhoa Azpirotz

Ez dira hitz eta aditz berriak, baina orain arte ikusi ez nituen eremu batean ikusi edo irakurri ditut. Bertsio, kopiatu, inprimatu eta eraiki hitzez eta aditzez ari natzaizue.

Bertsio hitza entzun eta abestien bertsioak datozkit burura. Hegoak ebaki banizkio abestiaren zenbat bertsio entzun ote ditugu! Hertzainak taldearen Aitorrena abestiaren bibolinaren bertsioa ere askoren buruan izango da.

Berbenetako taldeek ere abestien bertsioak eginez jartzen dute (edo zuten) jendea dantzan. Bertsio modernoak, puskatzaileak, abesti ezagunenak, ez hain ezagunenak... denetarik izaten da.

Bertsio hitzarekin bertsio gaua ere badatorkit burura, Santixabeletan arrakasta handia duen ekitaldia. Herriko musika taldeak abestien bertsioak jotzen dituzten gaua.

Informatikarekin ere lotzen dut bertsio hitza, programak hainbat bertsio izaten baitituzte: programa berritu, egokitu eta eguneratu ahala, daukan izenari zenbaki edo hizki berri bat gehitu eta bertsio berri bilakatzen da.

Bigarren hitza *kopiatu* da. Kopiatu, aldamenekoari lanak kopiatzen genizkion ikastolan —edo kopiatzen zizkigun—. Ordenagailuan *kopiatu* eta

Zikiro bertsioa



“Gaitasun handiko 3D inprimagailu industrialak erabiliz inprimatzen dituzte jakien bertsioak”.

AINHOA AZPIROTZ

“Bertsioa, kopiatu, inprimatu eta eraiki aditzak elikagaiaren arloan erabiltzen hasi dira”

itsatsi egiten ditugu hitzak, esaldiak, testuak, argazkiak edo dena delakoak.

Inprimatu hitzak, hirugarrenak, inprimagailuarekin eta inprimategiekin du lotura. Ordenagailuan idatzitakoa inprimatu daiteke bulegoko, etxeko edo dendako inprimagailuan. Aldizkari bat, liburu bat, katalogo bat edo egunkari bat inprimatzeko, berriz, inprimategiak daude, tirada handiagoko lanak egiteko.

Azken hitza, berriz, *eraiki* da. Igeltseroak, etxeak, erai-

kuntzako enpresak, adreilua, porlana, andamikoak... datozkit burura. Horrez gain, metaforikoki ere erabiltzen da politikan, herria eraiki, adibidez.

Bertsioa, kopiatu, inprimatu eta eraiki. Esandako arloekin lotzen nituen hitz eta aditz horiek orain arte. Baina janariari buruzko albiste batek (*Berria* egunkarian 2023ko urtarrilaren 7an argitaratua) elikagaien arloa eraman dizkit. Elikagaiak sortzen edo *eraikitzen* —hortxe duzue eraiki aditza— hasi dira gaitasun handiko 3D inprimagailu industrialak erabiliz —hemen, Euskal Herrian—. Alegia, txerriaren hirugiharra jan ordez, illarrekin eta oliba olioarekin hirugiharraren testura eta zaporea duen kopia sortzen dute —hortxe kopiatu aditza—. Elikagai berriak *inprimatzeko* —hortxe inprimatu

aditza— haragi soberakinak eta landare jatorrizkoak erabiltzen dituzte, animalia gehiagoren hilketa eragozteko. 3Dko inprimagailuan inprimatutako elikagaiak ez dira txuletak, izokinak edo ostrak; txuletaren bertsioa, izokinaren bertsioa eta ostraren bertsioa dira. Beraz, originalak eta kopiak existitzen dira.

Harrigarria dirudi, zaila egiten da behi txuleta ez den beste txuletarik egongo denik pentsatzea. Baina... pentsatzen jarrita... angulak eta gulak badaude jada! Gauza bera omen da: gulak angularen bertsioa dira eta atera zituztenean inork ez zituela jango uste omen zen. Gaur egun, ordea, supermerkatuetan gulak badaude, angulak ez. Eta gulak saltzen dira, kopia nahiko onak direlako, asebetetzen dutelako, eta ez direlako originalak bezain garestiak.

Harridura aurpegiak irudika ditzaket lerro hauek irakurri dituzuenon artean; nazka aurpegia jartzen dutenak ere bai; sinesgaitz begiratzen dutenak ere bai, *horrek ni ez nau harrapatuko* esanez eta betiko txuletaren defentsa eginez. Aurpegiak aurpegi eta iritziak iritzi, kontua da bertsioa, kopiatu, inprimatu eta eraiki aditzak elikadura arloan sartu eta erabiltzen hasiak direla. Eta... nork daki, akaso Santixabeletan zikiro bertsioa izango dugu platerean!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



Ika-mika

“Mila arrazoi ditugu borrokan jarraitzeko”

Urteetan pentsiodunak era txarrean tratatuak izan ondoren, Fatima Bañezek pentsioetan %25eko igoera aginduz eskutitza bidali zigun. Honek bazterrak harrotu zituen eta milaka pentsiodun kalera irten ginen borrokatzera. Bost urte geroago hala jarraitzen dugu.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendukoek lortutakoa ospatu egiten dugu; 2013ko PPrener erreformaren IRP (0,25) indargabetzea, Pentsio Sistema Publikoa (PSP) guztiz bideragarria dela erakustea, Iraunkortasun Faktorea indargabetzea eta gure pentsioak erdira murrizteko nahia eta erabaki berriak hartzeko ahalegina saihestea. Izan ere, aurten izango dugun %8,5eko igoera, galdutakoa konponduko ez duen arren, gure borroka lortu du. EHPMkoek euria ari zein

eguzkia izan, 230 astelehen geroago ere kalean jarraitzen dugula ospatzen dugu, pentsio publikoak, duinak, bidezkoak eta guretzako eta hurrengo belaunaldientzako nahikoak izan daitezzen eskubidearen alde borrokan.

Harro gaude bidezkoa den aberastasunaren banaketaren aldeko borroka egiteaz eta erakunde sozial eta sindikalekin partekatzeaz. Baita soldadak, pentsioak eta zerbitzu publikoak hondatzen dituzten politika publikoek aldatzeko erreferente garrantzitsua izateaz ere.

Osasun publikoari eta mendekotasuna artatzeko zerbitzu soziosanitario publiko komunitarioei laguntzeko mobilizazioetan parte hartu dugu; Euskal Herriko 200 udal baino gehiagotan banku-zerbitzuetan aurrez aurreko arreta bermatzeko mozioak onartzea lortu

dugu, langileen soldatak eta lan-baldintzak hobetzeko borrokei elkartasuna adierazi diegu. Euskal Herrian gizarte mobilizaziorako erreferente izatea lortu izana eta Estatuko beste herri eta erkidego batzuetako pentsiodunen elkarteekin mobilizazioak partekatzea ospatzen dugu.

Mila arrazoi ditugu borrokan jarraitzeko. Onartezina da langileek, pentsiodunek eta, oro har, herritarrek ordaintzea bizitzaren igoerarekin, finantza-oligopolioen eta energia kudeatzaileen mozkin errekorrak. Onartezina da gero eta pentsiodun gehiagok uko egin behar izatea oinarrizko premiak asetzeari, hala nola, etxe erosoa izateari, osasunerako eskubideari, elikadura osasuntsuari eta erretiroaren ondoren diru-sarrera duin eta nahikoak bermatuta izateari.

Horregatik guztiagatik,

azken bost urtean eskatzen ari garen premiazko eta ezinbesteko aldarrikapenak eskatzen jarraituko dugu.

Banatu nahi gaituenaren aurka: gazteak eta adinekoak, jarduneko langileak, pentsiodunak, gizonak eta emakumeak, eskakizun bera dugu, aberastasunaren bidezko banaketa, soldaten eta pentsioen erosteko ahalmena berreskuratzea eta zerbitzu publikoak hobetzea. Hala egin genuen 2020eko urtarilaren 30eko mobilizazio orokorrean edo 2022ko azaroaren 19ko mobilizazioan, eta berriro egingo dugu pentsioen erreformaren bigarren zatiaren aurrean.

Berdin dio nork gobernatu, guk pentsioak defendatu.

Borroka hau irabaziko dugu.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua

Ika-mika

Jaurlaritzak Argiari zentimorik ere ez, zergatik?

2022 urte bukaeran Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 6 milioi euro bannatu ditu EAEko hedabideen artean, Covid19ak prentsari eragindako kalteei aurre egiten laguntzeko. Informazio orokorreko hedabide nagusi guztiek jaso dute laguntza. Batek izan ezik: ARGIAk.

Zergatik? Batetik, Jaurlaritzak ezarritako baldintza bat zen “eguneroko informazioa ematen duten komunikabideak” izatea; baina kontua da hori praktikan jartzerakoan, irratiak, telebistak, egunkariak eta hedabide digitalak saritu dituztela... eta astekaria izan dela kanpoan utzi duten for-

matu bakarra. Horra Argia astekaria kanpo uzteko argudioa.

Beste aldetik, Argiaren Interneteko lana bai sartzen zen Jaurlaritzaren “eguneroko informazioa ematen dutenen” baldintza horretan, baina praktikan CIES soziologia enpresak 2021ean bilduta datuak hartzen ziren kontutan eta urte horretako datuak ez zeuzkan Argiak (2022koak badauzka) CIESen datuak edukitzeko hari pagatu egin behar zaiolako. Beraz, horra berriro ere Argia diru banaketatik kanpo.

Aurreko urtean ere Argia Covid19agatik laguntzetatik kanpo utzi zuen Jaurlaritzak, orduan beste argudio bitxi bat erabilia: dirua emango zela

“egiturazko gastu gehien dituzten euskarriak”.

Jaurlaritzak dio “herritarrek informaziorako eta kazetaritza-eskaintza plurala, askotarikoa eta independentea izateko duten eskubidea” daukatela eta horregatik dirulaguntzokin bermatu nahi omen duela “eguneroko informazioa ematen duten komunikabideen jarduerari”. Nabarmena da, ordea, helburu hori ez duela lortu, kanpo utzi duelako Argia bezalako komunikabide nazional bat EAEn bertan (Nafarroa eta Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) paperezko astekariarekin bakarrik 52.000 irakurle dituena.

Instituzioek erabakitzen

dute diru publikoz zein medio indartu, zeini lagundu bizirauten, zein baztertu... Gaur egungo panorama mediaticoan dauden botere harremanak ez dira ezerezetik sortuak, urteetan landutako soroa da. Kurioski, Jaurlaritzaren deialdiak aldarrikatzen duen “kazetaritza-eskaintza plural” horren kontra doa batzuei eta besteei ematen dieten tratu desorekatua.

Deia hemendik kazetaritza euskalduna eta independentea hauspotu nahi duten guztiei: gaur inoiz baino gehiago, babestu Argia, babestu informazio independentea. Egin zaitze Argiakide!

Usurbilgo Argiaren Lagunak

Udala: “Anerreka ingurumen elkarteak egindako salaketa bidegabetzat jotzen dugu”

Ugartondoko obrako komunetako ur zikinak Aranerreka isurtzen jardun dutela salatu zuen Anerreka Ingurumen Elkarteak duela bi aste. “2016az geroztik egoera hau gertatuko zela jakinda ere”, neurri zuzentzaileak hartu ez izana leporatu zion Udalari. Bide batez, eraikuntza enpresari zigor-espedienteak irekitzea eskatzen zuen. Salaketa honen aurrean, Udalak idatzi bat plazaratu du aste honetan: “abenduaren 20an isurketa bat izan zen Aranerrekan, Ugartondoko obren eraginez, eta Udalak berak sartu zuen salaketa”. Hobetzekoak badaudela onartuta ere, azken urteetan egindako lanak nabarmendu nahi ditu udal gobernauk.

Ugartondoko obrek isurketa bat eragin zuten Aranerrekan abenduaren 20an. “Udalak berak sartu zuen salaketa 112 telefonoan, eta lekuan bertan egon ziren Ura agentzia, Er-tzaintza, obraren ardura duen enpresa eta udala bera. Isurketaren arrazoiak ikusi, eta berriz ez gertatzeko neurriak hartu



Ugartondoko obren eraginez, abenduaren 20an isurketa bat izan zela aitortu du Udalak baina salaketa Udalak berak egin zuela argitu du.

USURBILGO UDALA
“Udala Aranerekako isurketa guztiak ur zikin eta euri uretan banatzeko lanean jardun da: oraindik ez da guztiz banatzea lortu, baina lanak bideratuta daude”

zituzten”. Udalaren hitzak dira hauek. Nonbait, Udala jakituzten Ugartondoko obraren hodi-teriararen inguruan arazoak zeudela, “eta obrak hasi aurretik jakinarazi zitzaizkien obrako arduradunei zein neurri hartu behar zituzten: garbiketarako zurrupatzaile baten bidez egin be-

har zituztela adierazi zitzaizkien”. Abenduaren 20ko isurketa, beraz, lanak behar bezala ez egitearen ondorio izan zela diote udal iturriek.

Eraikuntza enpresa ere Anerrekaren jomugan

Duela bi asteko NOAUA!n plazaratu zen artikuluan, Anerreka ingurumen elkarteak Udala eta eraikuntza enpresa jartzen zituzten jomugan. Udalak adituztera eman duenez, “enpresarekin harremanetan jarri zen abenduaren 22an, obretako etxoletako ur zikinak Aranerreka isurtzen badira neurriak hartzeko eskatzeko; zuzendu

beharreko hodia zein izan zitekeen ere jakinarazi zien. Abenduaren 26an udal-langileak obrara joan zen, eta frogatu ahal izan zuen hodi hori moztuta zegoela, behin-behinean. Enpresak zenbait proba egin zituzten hodi horretako ur zikinak ez zirela erreka iristen ziurtatzeko, eta frogatu ahal izan zuten hodia ur zikineta- ra egoki konektatuta zegoela”. Horrez gain, enpresak zenbait neurri hartu zituela dio Udalak: komun kimikoa jartzea eta etxolako komuna itxi eta hodia moztea. Beraz, Udalaren esanetan, aipatu hodiko ur zikinak ez ziren sistematikoki Aranerreka isuri.

“Ingurumen elkarteak egindako salaketa bidegabeta da”

Anerrekak Usurbilgo Udalari leporatu izan dion utzikeriaren aurrean, “bistan da zer egin eta zer hobetu ugari duela Udalak saneamenduari lotuta, baina hainbat lan egin dira azken urteetan, eta beraz, bidegabetzat jotzen dugu ingurumen elkarteak egindako salaketa”.

Egoera bideratzeko hainbat lan egin direla dio Udalak

Ur zikinena ez da gauza berria. Aranerekako arazoa aspalditik datorren arren, azken legegaldian ahalegin bat egin dela dio Udalak: “Aranerreka isurtzen ziren hainbat isurketa-gune konpondu dira Belmonten, Kalezarren eta Kale Nagusian”. Azken honetan, zuzentzeko dauden beste isurketa-gune batzuk bideratzeko lanean ari direla dio Udalak.

Aranerekaren inguruko udal lanketak

■ 2018an Aranerekako isurketa puntuen azterketa eta diagnostikoa egin zen, eta

2022an Aranerekako paisaia antolamendurako exekuzio proiektua idatzi zen.

■ 2019az geroztik, kontrol sistema bat abian da Aranerrekan, uraren kalitatea neurtzeko.

■ 2021ean, Aranerekako hainbat txukunketa lan egin ziren, Kalezar inguruan.

Oria ibairako bidea

Ika-mikak ika-mika, Udalak aintzat hartzen ditu Anerrekaren hitzak. Errekako ura Ori ibaira iritsi aurretik, guztiz lurperatu eta jauzi baten bidez iristen da Oriara. Anerreka elkarteak egindako proposa-

menarekin bat eginez, “Udalak jauzia kentzeko eta lurperatutako zatia azaleratu eta leheneratzeko eskatu zion Ura agentziari 2022an”.

Bestelako lanak

■ Aginagako saneamendua. Legegaldi hasieran Eusko Jaur-laritzak ez zuen aurreikusita Aginagako saneamendua egitea. “Udala Ingurumen sailarekin bildu zen, eta obra horri bultzada ematea lortu zuen. Hala, gaur egun, saneamendu orokorreko lanak egiten ari dira: udal eskumeneko ur saneamendu sareare ere egokitu egin behar da,

eta hori berritzeko proiektua idatzi du Udalak, gaur egun martxan dagoen obrarekin bat egingo duena”.

■ San Estebango depositua. 2023an udal ur hornidura zabaltzeko inbertsio bat egingo da San Estebango deposituetan. “Filtrazio sistema berri bat ezarriko da, eta horri esker Erroizpeko presako ura erabili ahal izango da”.

Aranerrekan gertatutakoa bideratzeaz gain, euri jasa handiek sorturiko trabak ekidin eta hodi-teriar-arazoak konpontzeko lanean diharduela dio Udalak.

Sagardotegietara hurbiltzeko garaia da

Gure Sagardo Berria lau haizeetara ohikatu da Gipuzkoako sagardotegi garaia. Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktoreak izan dira 2023ko txotx bolada abiatzeko ohorea izan dutenak. Astigarragan egin zuten, XXX. Sagardo Berriaren Egunaren ospakizunean. Ohi bezala, sagarrondo berri bat landatu zuten Sagardoetxea museoaren sagastian.

Ekitaldia jendetsua izan zen eta hango eta hemengo ordezkari ugari batu ziren: Jabier Larrañaga Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Diputatuak; Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea; Jesus Garcia de Cos Turismo eta Merkataritzako sailburuordea; Maider Lopetegi Fruiteleko Lehendakaria eta Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko ordezkaria eta Buruntzaldeko udal agintariak, tartean, Agurtzane Solaberrieta alkatea.



Jon Plazaolak eta Aitziber Garmendiak ilusio handiz hartu zuten Sagardoaren Lurraldearen gonbidapena.

“Hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria!”

Murritzetarik gabe eta jendetza batuta ekin zion txotx denboraldi berriari Saizar sagardotegiak urtarrilaren 10ean. Aurpegi ezagun mordoarekin, baina bi nabarmendu zituzten duela astebete ospatu zuten irekiera ekitaldian; Pablo Hermoso de Mendoza burtzikari nafarra eta bere semea. “Hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria!”, zioten aita-semeek txotxetik jasotako sagardo berria biltzen zuen edalontzia goratzen zuten artean. Haiekin batera, kirolari, aktore, musikari edota telebistako aurkezle ezagun anitz. Baita noski, Saizarko sagardo berria dastatzera joandako hainbat herrikide ere.

Julian Iantzik aurkezturiko ekitaldia Korrontzi taldeko kide diren trikitilari eta dantzariak girotu zuten. Andoni Egañak botatako bertsoak egin zien harrera txotx denboraldi berriari ekiteko ohorea izan zutenei.



Pablo Hermoso de Mendoza burtzikari nafarra eta bere semeak zabaldu zuten Saizar sagardotegiko txotx garaia.

ARANKA
BERRIKUNTZAK

· Fatxadaren estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra

722 297 867 USURBIL

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

Uraitz, s.l.

Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

Otsailerako ikastaro sorta oparoa prestatu du Kzgunek

Usurbilgo Kzgunek jaundani prest du otsailerako ikastaro sorta. Eskaintza horretako ikastaroe-tan partehartzeko ezinbestekoa izango da bertako erabiltzaile izatea eta alde zuzenetik izena ematea telefonoz zein webgune bitartez.

Kzgunek ikastaro ugari eskaintzen ditu ikasturte osoan zehar eta otsailerako sorta ederra aurreikusi du: Enplegu-bilaketa; e-Administrazioa; Oinarrizko formakuntza; Irudia eta bideoa; Aisia eta entretenimendua; Ofimatika; Produktibitatea; Sare sozialak zein segurtasuna.

Informazio gehiagorako:

Zehaztasun gehiago jaso ditzaitezue telefonoz, honako zenbakian: 943 023 684.

Kzgunek otsailerako egin



Ikastaroetan partehartzeko ezinbestekoa izango da bertako erabiltzaile izatea.

OTSAILEKO ESKAINTZA

**Enplegu-bilaketa;
E-Administrazioa;
Oinarrizko formakuntza;
Irudia eta bideoa; Aisia
eta entretenimendua;
Ofimatika;
Produktibitatea; Sare
sozialak zein segurtasuna**

duen eskaintza sarean ere ikusgai duzue: www.kzgunea.eu/eu/ikastaroak atarian kontsulta

egin.

Kzgunean bertan ere jaso daiteke informazioa. Une honetan, dena den, alde zuzenetik hitzordua eskatuta bakarrik joan daiteke Kale Nagusiko 37. zenbakiko egoitzara.

KZguneko ordutegia

Astelehenetik ostiralera egoten da zabalik. Urtarrilean, 09:00etatik 13:00era egongo da zabalik. Otsailean, 16:00etatik 20:00etara.

Hitzaldi ziklo berria, Hitz Ahoren eskutik

Asteotarako hitzaldi zikloa antolatu du Hitz Aho Udaregi Ikastolako guraso elkarteak.

Urtarrilak 19, osteguna

■ 17:00-19:00 "Arauk eta mugak familian. Nola ezarri modu asertibo batean" tailerra Potxoenean, haur eta nerabeen gurasoentzat.

■ Izen-ematea:

usurbilkultura.eus
gaztelekuausurbil@gmail.com
hitzaho@udarregi.eus.

■ Oharra: plaza kopuru mugatua.

■ Antolatzaileak: Gaztelekua eta Hitz Aho.

Urtarrilak 26, osteguna

■ 17:00-19:00 "Interneteko arriskuak eta ziberseguru jokatzeko aholkuak" solasaldia Potxoenean.

■ Hizlaria: Urko Zurutuza Ortega.

■ Zehaztasunak: "Nahiz eta guk ez jakin, gure etxeko "rou-

ter"-ek ehunka eraso jasaten dituzte egunero. Hau gutxi ez eta, Interneten nabigatzean arrisku askori egin behar diegu aurre, bai etxeko ordenagailu, eta baita eskuko beste gailuetan ere. Segurtasun erremintak baliogarriak izanik ere, herritarrok gai hauetan dugun ezjakintasan arriskuak sortzen ditu. Honi buruz hitz egingo dugu solasaldian".

Antolatzailea: Hitz Aho Udaregi guraso elkarte.

Igande honetan Odol-Emileen Eguna ospatuko dute Patrin

Historikoki abenduaren 8a izan da Usurbilgo Odol Emileen Eguna. Azken urteotan etenda zuten ohitura urte hasiera honetarako berreskuratu dute. Hilaren 22an bazkaritan biltzeko deia egin diete Usurbilgo odol-emaleei eta bertaratu nahi duten gainerako herrikideei. Otorduan bertan odola 25, 50 edota gehiagotan eman duten 11 herrikide omenduko dituzte. Haiei guztiei diplomak eta oroigarriak banatuko dizkiete.

Aurretik eman behar da izena

■ Urtarrilak 22, igandea.

■ Bazkaria Patri jatetxean eta diploma zein oroigarrien banaketa 25, 50 eta gehiagotan odola eman duten 11 herrikideri.

■ Otordurako izen-ematea, hilaren 18a baino lehen: 943 363 102 (Agustina). 619 125 644 (Mari Jose).

■ Prezioa: 35 euro.

■ Antolatzaileak: Usurbilgo Odol-Emileen elkarte.

Zibersegurtasunari buruzko hitzaldia Potxoenean

Hitz Aho guraso elkarteak antolatu duen hitzaldia hilaren 26an izango da, ostegunez, 17:00etan Potxoenean. Urko Zurutuza aditua arduratuko da solasaldia gidatzeaz.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak.
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Neguko lehen denboralea

Garaian garaikoa bizitzera ohitzea utzia genionean heldu da aste hasiera honetan, negu parteko lehen denboralea, euri zaparrada eta haize bolada bortitzekin.

Aste hasieratik abisu horian ginen hain zuzen prezipitazio iraunkorragatik, baita haizeagatik ere. Astearte goizaldean bat baino gehiago esnarazi zuten ufada gogorrek; tartean ondoko argazkiak helarazi zizkigun Zubietako zenbait bizilagunek. Zuhaitz bat Learritza pasealekuan duten etxe gainera jausi zitzairen. Zuhaitzak gainera, parean zuen argindar zutabea bota zuen. Sustoaz gain, ezbeharrak ez zuten inor zauritu. Goizean zehar garbitu zuten bidea.

Lur mugimenduak

Usurbilgo Udaletik astearte goizean ohartarazi zuten zutabea bestalde, "hainbat intziden-



Kaparotzetik Udarregi baserrirako bidea moztu zuen asteartean Udaltzaingoak. Euriteak lur-jausi txiki bat eragin zuelako. Argazkia: Udala.

DENBORALEA

"Zubietan, Arratzainen, Txokoalden... Intzientziak ugariak izan ziren"

tzia izan dira, besteak beste, Zubietan, Arratzainen eta hi-

lerri inguruan, Txokoalden...".

Haietako bat honako hau izan zen; "Kaparotzetik Udarregi baserrirako bidea moztu du udaltzaingoak. Lur-jausi txiki bat izan da, eta ixtea erabaki dute, lur mugimenduagatik".

Tren zerbitzua, hainbat orduz etenda

Handik gutxira heldu zen bigarren ezustekoa. Beste zuhaitz bat erori zen trenbidera eta zerbitzua eten egin zuen Euskotrenek Orio eta Usurbil artean. Eremu honetan, autobus zerbitzua ezarri zuten garbiketa lanak amaitu artean.

Maila horian

Haizeaz gain, euria gogotik ari zuten hilaren 17an aldizkari hau inprentara bidaltzear genuela. Oriak goizalde berean maila horia gainditu zuen Euskalmet meteorologia agentziak Lasarte-Orian duen estazioan bildutako datuen arabera. Eta euritan segi zuen, inguruotako bazterrak noiz zurituko zain. Asteazkenerako, elurra oso behean iragarria zuten; 200 metroren bueltan. 2018ko otsailan izan genuen azkenekoz elurtea Usurbilen. Bost urteotan mendi inguruak baino ez ditu zuritu.



Zuhaitz bat trenbidera erori eta autobus zerbitzua ezarri zuten garbiketa lanak amaitu artean.



Oriak maila horia gainditu zuen astearte goizean, Euskalmet meteorologia agentziak Lasarte-Orian duen estazioan bildutako datuen arabera.



Zuhaitz bat Zubietako Learritza pasealekuko etxe baten gainera jausi zen. Zuhaitzak gainera, parean zuen argindar zutabea bota zuen.

Jon Hernandez: “Saskibaloia lotuta lan asko egin dut orain arte”

Kirok kazetaritzan dihardu lanean Jon Hernandez kazetariak. Euskadi Irratian entzuna izango du nork edo nork, bai eta saskibaloia lotuta egin dituen lanetan edota udaz geroztik sortu duen podcastaren bidez. Saskibaloia zaleentzat podcast bikaina sortu du euskaraz egunerokotasuna jarraitu nahi dutenentzat.

NOAUA! Kazetaria zaitugu eta sarri ibili zara kirol kazetari lanetan. Zertan zabilta orain?

Jon Hernandez: 2019ko ekainean amaitu nituen kazetaritza ikasketak eta ordutik, Euskadi Irratian bekadun ibili naiz. Ikasketak amaitu baino zertxobait lehenagotik zehatzago izateko. Behin beka amaitu zitzaizdanean, ordezkapenak egiten hasi nintzen eta horretan jarraitzen dut orain ere. Hiru urte eta erdi daramatzat horrela. Master bat ere egin nuen multimedia kazetaritzan. EITB eta EHUK eskaintzen duten master bat da, eta horrek gero aukera eman zidan praktikak egiteko Bilbao Basketen komunikazio lanetan. Orain oraingoz, Euskadi Irratian ordezkapenak egiten jarraitzen dut eta Donostiako produktora batentzat ere lan egiten dut. Bilbao Basketen



“2019ko ekainean amaitu nituen kazetaritza ikasketak eta ordutik, Euskadi Irratian bekadun ibili naiz”.

JON HERNANDEZ

“Usurbilen futbolean eta eskubaloian ibiltzeko aukera dago, baina saskibaloian ibiltzekorik ez”

partiduak ematen dituzte eta hor ere ordezko moduan nabili.

Saskibaloia aurkitu zaitu edota zuk hura aurkitu duzu, beraz.

Saskibaloia lotuta lan asko egin dut orain arte. Masterreko praktikak, aipatu bezala, ACB saskibaloia ligako talde batean egin nituen, podcast bat daukat saskibaloia buruz eta Euskadi Irratian ere tarteka saskibaloia-

ri buruzko informazioa ematea tokatzen zait.

Saskibaloia duzu kirol gustukoena?

Bai. Usurbilen futbol eta eskubaloian ibiltzeko aukera dago, baina saskibaloian ibiltzekorik ez. Beraz, jende gehienak bi kirol horiekiko du zaletasun gehien. Nik txikitatik ikusi izan dut saskibaloia futbolarekin batera, eta eskolako patioan ere kirol horiek praktikatzen genituen. Baditut lagun oso saskibaloia zaleak ere, nahiz eta gehiengo futbolzalea den.

Saskibaloia buruzko podcast bat ere baduzu.

Udan baneukan zerbait egiteko ideia eta neskalagunak ere bultzatu nau bide hau hartzerara. Euskaraz ez dago gisa honetako produkturik, edo nik dakidala behintzat ez. Gaztele-raz egongo dira, baina euskaraz hutsune hori ikusi genuen. Hobby modura planteatu nuen hasieratik, gerora ordezkapen asko edo tokatuz gero, baldintza ez ziezadan. Lehen ideia bat sortu eta programaren hezurdura prestatu nuen eta gonbidatuak prestatu nituen. Horrela hasi zen proiektua eta horretan dihardut lanean.

“Ivoox eta Spotify plataformetan zabaltzen dut podcasta”

NOAUA! Non aurki daiteke podcast hori?

Jon Hernandez: Nik Ivoox plataformaren bidez egiten dut podcasta. Ikertzen aritu nintzen zein plataforma erabil nitzakeen podcast bat sortzeko eta Ivooxek aukera ematen zuela ikusi nuen podcast hori Spotifyra igotzeko. Grabatu eta editatu Audacity programaren bidez egiten dut eta ondoren, audioa Ivooxera

igotzen dut.

30 egin ditut orain arte, 15 euskaraz eta beste hainbeste gaztelerez. Horiek guztiak Ivooxen aurki daitezke. Spotifyen azken 20 baino ez dira mantentzen, igo ahala zaharrenak desagertu egiten dira eta 20 berrienak mantentzen dira bertan. Twitterren ere podcasterako lotura zuzena daukat eta @podcast_airball kontuan eta hor jartzen ditut programa guztiak.



Hasi zenetik hona 30 saio egin ditu bere podcastean.

“Beti esan izan didate irratirako ahotsa daukadala”

NOAUA! Euskal Herrian saskibaloia zaletasun handia dagoela uste duzu?

Jon Hernandez: Euskal Herrian momentu honetan bi talde daukagu elitean: Baskonia eta Bilbao Basket. Bigarren mailan Iraurgi eta Gipuzkoa Basket. Nire ustez, saskibaloiarekiko pertzepzioa oso ezberdina da probintzia bakoitzean. Araban saskibaloia zaletasuna futbol zaletasuna baino indartsuagoa dela esango nuke. Baskonia da hirien eta probintziaren ikur nagusia, nahiz eta Alaves futbolearen ere badagoen bigarren mailan. Saskibaloia tradizio handia du Arabak eta oso talde ona dute, gainera. Bizkaian Bilbao Basketekin ere antzeko zerbait gertatzen da, masa sozial handia mugitzen



“Orain arte egin dudana lan guztia irratian izan da eta posible balitz, bide horretatik jarraitzea gustatuko litzaidake”.

duelako. Kasu horretan, ordea, ezin da konparatu Athleticekin. Athleticetikiko zaletasuna izugarria da Bizkaian eta ezin du horren aurka ezer egin

Bilbao Basketek. Gipuzkoan, berriz, ez dago zaletasun handiegirik. Gipuzkoa Basket oso indartsu egon zen garaian Real bigarren mailan zegoen eta

saskibaloiak indar handia hartzeko aukera izan zuen egoera hori ikusita. Euskal Herri osoa hartuko duen irudi bat egitea oso zaila da probintziako egoera oso ezberdina delako.

Zure ibilbide profesionalari jarraituz, nora heltzea gustatuko litzaidake?

Niri beti esan izan didate irratirako ahotsa daukadala. Orain arte egin dudana lan guztia irratian izan da eta posible balitz bide horretatik jarraitzea gustatuko litzaidake. Podcasta ere bide horretatik dator zuzenean, nolabait. Kiroletan aritua naiz ia beti orain arte eta kazetaritzak dituen arloetan hori dut gustuko. Beraz, irratian kirol kazetari lanetan ikusten dut neure burua.

noaua.eus
Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak, agenda, zorion-agurrak, eguraldia, aldizkaria online...
Klik batean den-dena ikusgai zure eskuko telefonoan, tablet-ean edo ordenagailuan.

www.noaua.eus

Aginagan bizi nahi, baina hobekuntzekin

Aztiker Ikerguneak Aginagarentzat eginiko ikerlana aurkeztu zuen urte amaieran Eliza Zaharra elkargunean. Udazkenean zehar, Antxomolantxa kultur elkarteak, San Praixku guraso elkarteak eta aipatu elkargunearen enkarguz, herrikideen artean eginiko inkestan jasotako datuak hain zuzen. Aginagan bizi diren 16 urtetik gorako 372 lagunetatik 136 herrikideek hartu dute hitza prozesu honetan.



Ondoen baloratutako zerbitzuen artean dira Eliza Zaharra eta eskola.

Erdiak baino gehiagok Aginagan bizitzearekiko asebetetze maila altua du (6,8 puntu). Balorazio oso ona egiten dute Aginagak duen herri nortasunaz, bizi kalitateaz, Aginagan bertan ikasteko duten aukeraz edota iritzi bera dute tokiko kultur eskaintzaz ere. Ia denek (%90etik gora) ezaiztuzten dituzte eskura dituzten zerbitzuak eta nagusiki zazpitik gorako puntuazioa ematen diete zerbitzuoi. Baloratuenak; Eliza Zaharra eta eskola.

Udal gobernu taldeaz nahirako balorazio ona egiten dute sustatzen duten parte hartzearen nahiz jasotzen dituzten hainbat zerbitzuen ikuspegitik, nahiz haien iritzi, ez dakien

AZTIKERREN IKERKETA

“Aginagarrak bereziki biztanleriaren zahartzeak kezkatzen ditu edota N634 errepideko segurtasun faltak”

nola aurre egin arazoei.

Bizitzeko aukerak erraztea

Etorkizunari begira, kezka adierazten dute biztanleriaren zahartzeagatik. Gainerakoan, herri nortasunak, etxebizitza aukerak, Aginagako zerbitzuek, kaleko giroak (%49,3), biztanleriaren bilakaerak (%36) eta lan aukerak (%45,6)

bere horretan jarraituko dutela uste dute.

%71,3ak bertan bizitzen segi nahi du. Baina horretarako Aginagan bizitzeko aukerak erraztea lehentasuntzat jotzen dute, herri mailako irisgarritasuna hobetzearekin batera. Gainerako %28,7ak ez du Aginagan bizitzeko asmorik. “Aginagatik kanpo bizi nahi dutenen artean argumentu ezberdinak aipatu dira hori azaltzeko. Batetik, bizitza soziala edota seme-alaben eguneroko ekintzak Usurbilen egiteak hara bizitzera joateko asmoa azaltzen du. Bestetik, eguneroko tramiteak, lana edota erosketak egiteko beste udalerrri batzue-

tara mugitu behar izateak ere Aginagatik joateko asmoa arrazoitzen dute. Bukatzeko, bes-telako arrazoi batzuk ere aipatu dira, hala nola, zahartzaroa pasatzeko leku desegokia iruditzen zaiela edota etxebizitza aukera faltagatik Aginagatik joatea pentsatzen ari direla”.

Zerbitzuen falta

Bizi soilik ez, ikasi ere Aginagan egin nahi dute. Bertako herri bizitzan eremu estrategikoa den Aginagako eskola indargunetzat jotzen dute. Herri bizitzari eta nortasunari egiten dion ekarpena nabarmentzen dute, baina kezka agertu ere bai, eraikinaren zahartasunaz, eta ikasle kopuruan izaten ari den gainbeheragatik.

Baina zer hobetua ere ikusten dute. Bi gabezia nagusi identifikatu dituzte: erosketak egiteko denda eta zerbitzuen falta. Aginagarrak bereziki biztanleriaren zahartzeak eta gainbeherak kezkatzen ditu edota N634 errepideko segurtasun faltak.

Egun ez dituzten eguneroko erosketetarako denda eta auzo udala, lehentasuntzat jotzen dituzte. Urte hasiera honetan, lanketa horri segida emateko zenbait formazio saio egitekoak dira.

Aginagako nortasuna eta bizi kalitatea, baloratuen artean

Parte hartutako 16 urtetik gorako herrikide kopurua:

■ 136 (Aginagak 16 urtetik gorako 372 biztanle).

Inkestatuaren generoa:

■ 75 emakumezko (%55,1).
■ 61 gizonezko (%44,9).

Aginagarekiko asebetetze maila, 0-10 puntuazioa:

■ 7-10: 75, %55,1.
■ 4-6: 53, %39.

Bataz besteko puntuazioa: 6,8.

Aginagak dituen arazo nagusiak:

■ Erosketak egiteko denda falta: 17, %16.

■ Zerbitzuen falta orohar: 12, %11,3.

Pertsonalki kezka nagusia zein den:

■ Despopulazioa eta biztanleriaren zahartzea: 12, %16.

■ N634 errepideko trafiko handia eta arriskua: 9, %12.

■ Kaleak eta espaloioak konpondu beharra: 8, %10,7.

Aginagaren hainbat esparruren balorazioa (0-10 puntuazioa):

7-10 puntu:

■ Aginagako nortasuna (%64).

■ Bizi kalitatea (%71,3).

■ Aginagan bertan ikasteko aukera (%53,7).

■ Kultur ekintzak (%57,4).

4-6 puntu:

■ Kaleko giroa (%38,2).

0-3 puntu:

■ Etxebizitza (%39,7).

■ Lan aukera (%44,9).

Aztiker Ikerguneak Aginagarentzat eginiko ikerlanetik hartutako datuak.

Gehiengoaren esanetan, eguneroko erosketetarako denda falta du Aginagak

Usurbilgo udal gobernuari buruzko iritzia

- Ez daki nola konpondu Aginagako arazoak: 47, %34,6.
- Ez daki edo ez du erantzun: 34, %25.
- Badaki nola konpondu Aginagako arazoak, baina denbora gehiago behar du: 29, %21,3.
- Herriko arazo nagusiak konpontzea Udalaren eskumetatik kanpo dago: 18, %13,2.
- Aginagako arazoak konpontzen ari da: 8, %5,9.

Udal kudeaketaren balorazioa hainbat aspektutan

- Nahiko kudeaketa ona: herritarren parte hartzea (%40,4), Aginagak Udaletik jasotzen dituen baliabideak (%49,3), ingururumen arloko zerbitzuak (%44,9), kale garbiketa (%38,2).
- Oso kudeaketa txarra: hiritzintza lanak (%36).
- Ez daki edo ez du erantzun: kultur eskaintza sortzeko elkarteei Udalak emandako dirulaguntza (%40,4), gizarte zerbitzuak (%40,4).

Udal zerbitzu eta baliabideen ezagutza (%)

- %90etik gora: Arrate taberna, Eliza Zaharra, harategia.
- %80etik gora: eskola, Arrate jubilatuen elkarte, Atarialde elkarte gastronomikoa.

Udal zerbitzu eta baliabideen balorazioa (0-10 puntuazioa)

- Puntuazio altuena: Eliza Zaharra (9), Eskola (8,2), Atarial-



Aginagan bizi diren 16 urtetik gorako 372 lagunetatik 136 herrikidek hartu dute hitza prozesu honetan.

AGINAGAKO INKESTAN JASOA

“Hirutik baten esanetan, Usurbilgo Udalak ez daki nola konpondu Aginagako arazoak”

de elkarte eta ile-apaindegia (7,6).

Aginagako eskolari buruzko iritzia

- 0-12 urte arteko haurrik bai: Haur bat: 11, %8,4. Bi haur: 20, %15,3. Hiru haur: 2, %1,5. Ez: 98, %74,8.

0-12 urte arteko haurren matrikulazioa:

- Aginagako Eskolan: 27, %47,4.
- Usurbilen: 22, %38,6.

Aginagako Eskolaren indarguneak (48 erantzun):

- Iritzi positiboa: 14.
- Aginagari bizia eta herri izaera ematen dio: 12.

Aginagako eskolaren ahulguneak (21 erantzun):

- Eraikina zaharra da: 10.
- Geroz eta haur gutxiago, eskola gainbeheran joateko arriskua: 2.

Aginagarrek egun ez dituzten eta lehentasuntzat dituzten zerbitzu eta baliabideak

- Eguneroko erosketetarako denda: 116, %87,9.
- Auzo udala: 74, %56,1.
- Kutxazain automatikoa: 43, %32,6.
- Kultur ekintzak: 15, %11,4.

Aginagaren etorkizun hurbilaren perspektiba

- Berdin mantenduko da: herri nortasuna (%47,1), etxebizitza aukera (%40,4), Aginagako zerbitzuak (%42,6), kaleko giroa (%49,3), biztanleriaren bilakaera (%36), lan aukera (%45,6).
- Okerrera egingo du: biztanleriaren zahartzea (%44,9).

Etorkizuneko balizko udal proiektuen lehentasuna

- Etxebizitza promozioak erraztea, bertako jendea Aginagan geratu eta gazteak erakaritzeko: 53, %39.
- Irisgarritasuna hobetzea: 44, %32,4.
- Kaxkoaren birmoldaketa eta oinezkotzea: 10, %7,4.
- Errioko kultura eta turismoa sustatzeko proiektua: 8, %5,9.
- Oinezkoentzako ibilbideak: 6, %4,4.
- Etorkinentzat harrera plana eta integrazio protokoloa: 2, %1,5.

Etxebizitza erregimena

- Jabetzan: 119, %93.
- Errenta-alokairuan: 8, %6,3.

Etxebizitza aldatzeko beharra duzu?

- Ez: 121, %89.
- Bai: 9, %6,6.

Etorkizun hurbilean non bizi nahi lukete:

- Aginagan bertan: 97, %71,3.
- Ez daki, ez du erantzun: 21, %15,4.
- Usurbilen: 8, %5,9.
- Orion: 4, %2,9.
- Beste nonbait: 6, %4,4.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

bazkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Enplegua sustatzeko bi ebazpen kaleratu ditu Udalak

Auzolanberri IV programaren eta lokal komertzial hutsetan jarduera ekonomiko berriak sustatzeko dirulaguntzaren ebazpena kaleratu du Usurbilgo Udalak.

“Auzolanberri IV” programa

“Beterrri Buruntza eskualdean Auzolan Berri IV. programan parte hartu duten eta programa hori gainditu duten langabeak kontratatzeke” Gipuzkoako enpresek eskuragarri duten dirulaguntza deialdiaren ebazpena da.

Usurbilgo Udalak deialdia apirilaren 4an argitaratu zutenetik azaroaren 30era arte, eskaera bakarra jaso dute, Hernaniko Chimeneas Erre SL-rena. “Diruz lagundutako kontratazioei dagokionean gutxieneko iraupena 3 hilabete-koa izango da lanaldi osoan”. Tarte horretan, “3 hilabete edo gehiagoko kontratua lanaldi osora 3.000 euroekin lagunduko da”. Informazio gehiago, urtarrilaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Lokal komertzial hutsetan jarduera berriak abiarazteko dirulaguntza deialdia

Bi laguntza lerro ditu deialdi honek; jarduera ekonomi-



Udalak bi diru-laguntza lerro iragarri ditu: jarduera ekonomiko berriak abiarazteko eta lokalaren alokairu edo erosketak gastuak ordaintzeko.

AUZOLANBERRI IV

“3 hilabete edo gehiagoko kontratua lanaldi osora luzatzea 3.000 euroekin lagunduko da”

ko berriak abiarazteko bat (5.500 eurokoa gehienez) eta lokalaren alokairu edo erosketak gastuak ordaintzeko bestea (gehienez 300 euro hilean lehen urtean, gehienez 200 euro hilean bigarren urtean). Usurbilgo Udalak deialdi honen oinarriak martxoaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituenetik azaroaren 30era arte finkatua zuten epearen baitan, eskaera berri bakarra jaso da. Bestetik, iaz erregistraturiko beste eskaerabaten harira, eskatzaile hark

“bigarren urteko alokairuaren dirulaguntza eskaera burutu du”. Informazio gehiago, urtarrilaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Laguntza-programak kudeatzeko hitzarmena

Beterrri Buruntza mankomunitateak eskualdean gauzatu nahi dituen programak bideratzeko hitzarmena sinatu zuten abenduaren 2an Usurbilgo Udalak eta aipatu mankomunitateak. Programok garatzeko hain zuzen: enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2022ko laguntzak, “Haziinova”, “ETE digitala”, “Elkar-Ekin Lanean” eta “Ekinnean-Zerbitzua”.

Xehetasun gehiago, urtarrilaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Oriako hiru presa txiki eraisteko lanen proiektua jendaurrean da

Txikiardi parean, Orian Iturrate irlaren bueltan dauden “Michelin 1, Michelin 2 eta Asteasuainzarra” presa txikiak eraisteko proiektua jendaurrean jarria du Gipuzkoako Foru Aldundiak urtarrilaren 12az geroztik 20 egun baliodunetz.

“Proiektua ikusgai egongo da www.gipuzkoa.eus/eu/

web/obrahidraulikoak web orrian, eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan. Aipatu presak Txikiardi pareko Iturrate irlaren bueltan daude Orian, hiru udalerrien (Usurbil, Lasarte-Oria eta Donostia) artean. Presa hauek eraisteko proiektua Injelan S.L. enpresak idatzi du Aldundiaren

enkarguz. “88.748,15 euroko aurrekontua du, BEZa barne, eta hiru hilabeteko ekuzio-epena du”. Proiektu hau gauzatu, “korronte egoera askoz naturalago bihurtzea ahalbidetuko du, migrazio-rako oztoporik gabe”.

Xehetasun gehiago, urtarrilaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO).

Bi ikastaro Parekidetasun Saitetik

“Biodantza” ikastaroa

- Iraupena: Urtarrilak 10-martxoak 28.
- Saioak: Asteartero, 15:30-17:00 artean Oiardo Kiroldegian.
- Bideratzailea: Eider Zuriarrain.
- Zehaztasunak: “Gorputz adierazpen sistema bat izateaz gain, garapen pertsonalerako proposamena ere bada non, talde testuinguru batean, musika, mugimendua eta ariketa/dantza antolatuen bitartez, gure gaitasun naturalak garatzen diren”.

“Aprender a quererse y a cuidarse bien” ikastaroa

- Epea: urtarrilaren 19tik martxoaren 30era.
- Saioak: ostegunetan, 17:00-19:00 artean Potxoenean (gaztelaniaz).
- Bideratzailea: Kontxi Lopez Soria.
- Zehaztasunak: “emakumeoi jasotzen dugun genero-hizkuntza dela eta zaintzaile, hezitzaile, emozio-kudeatzaile rola esleitzen digute. Inguruko beharrak norberarenak baino garrantzitsuagoak direla azpimarratuz eta norberaren zainketa alde batera utziz. Ikastaro honen bitartez emakumeen arteko topaketa eta hausnarketa espazio bat lortu nahi da, eta emakumeen bizi kalitatea hobetu hazkunde pertsonalaren bitartez”.
- Izen-ematea: Doan urtarrilaren 9ra arte, 943 377 110 telefono zenbakian edo parekidetasuna1@usurbil.eus helbidean.
- Oharra: plaza kopuru mugatua.

Dominekin itzuli dira Cesa 2023 eskubaloitxapelketatik

Lau herrikide euskal selekzioeko bi talderekin lizan dira Benidormen, Espainiako eskubaloitxapelketa jokatzeko. Urtarrilaren 3tik 8ra Valentzian izan den Cesa 2023 delakoa jokatzetik itzuli berriak dira. Batetik, Mikel Alzaga Martinez eta Xabat Beloki Seguro. Jubenil nesken euskal selekzioarekin aritu dira lanean teknikari; lehenengoa entrenatzaile gisa, bigarrena entrenatzailearen laguntzaile moduan. Iaz ere aritu ziren zeregintan.

A multzoan jokatu zituzten Espainiako txapelketako hiru neurketetatik bi irabazi zituen teknikari taldean ziren bi usurbildarrek zuzenduriko jubenil nesken euskal selekzioak. Bigarren postuan sailkatuta itzuli dira etxera, zilarrezko domina eskutan zutelak. Hemen emaitzak:



Jubenil mailako euskal selekzioetan lau usurbildar aritu dira.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Mikel Alzaga Martinezek eta Xabat Beloki Segurok jubenil nesken selekzioa zuzendu zuten

Euskadi 26-24 Katalunia
Nafarroa 33-21 Euskadi
Euskadi 28-25 Galiza

Usurbil K.E.-ko bi jokalar

Txapelketa berean hirugarren

postuan sailkatu zen bestalde, jubenil mutilen euskal selekzioa. Datu hau lerrotara talde horretan bi herrikideek parte hartu zutelako dakarkigu; Usurbil Kirol Elkarteko Iker Nazabal Aisak eta Peru Iraeta Agirrek. Hemen A multzoaren baitan jokaturiko neurketetan eskuratu zituzten emaitzak: Euskadi 24-34 Andaluzia
Euskadi 28-28 Madril
Katalunia 33-29 Euskadi

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proban izena emateko azken egunak

Hilabete amaieran, mendiko bizikleta zaletuen topagunea izango da herri hau. Urtarrilaren 29rako iragarri dute Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probaren hamaikagarren edizioa. Ohi bezala Andatzari itzulia emateko aukera izango dute bizikleta gainean, proba honetan parte hartuko dutenek. Hilabete honetako azken igandean, 9:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

Izen-ematea urtarrilaren 25ean amaituko da

Probarako aurrez izen emateko aukera izango duzue, ur-



Proba urtarrilaren 29an izango da baina izen-ematea lehenago amaituko da.

tarrilaren 25era arte, kronoak.com atarian. 500 laguntzako tokia egongo da proban, anto-

lakuntzak ohartarazi duenez ordea, 400etik gora lagunek bideratu dute inskripzioa.

Itoitz Rodriguezek marka berri bat ezarri du

Itoitz Rodriguez Real Sociedadeko atleta usurbildarrak marka berri bat ezarri zuen aurreko asteburuan. Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Donostiako belodromoan eta 800 metroko indoor lasterketa (leku itxi eta estalian burutzen den kirol-proba) 1:51:79 denboran osatu zuen. Usurbildarrak duela 35 urteko marka hobetzea lortu du: Iñigo Arzacek 1987an ezarritakoa, 1:52:61.



Gipuzkoako markarik onena ezarri du 800 metroko distantzian.

Inauteri Festarako gaia proposatu

Otsailaren 18an ospatuko dugun Inauteri Festarako gaia proposa dezakezue bideotatik: elkartea@noaua.eus
688 807 336.

Urtez urtekoa

- 2022: gai librean ospatu zen Inauteri Festa.
- 2021: osasun krisialdia tarteko, ez zen Inauteri Festarik antolatu.
- 2020: dantza.
- 2019: jolasak.
- 2018: ospetsuak.
- 2017: ingurumena.
- 2016: lanbideak.
- 2015: ipuinak.
- 2014: Erdi Aroa.
- 2013: musika.
- 2012: mitologia.
- 2011: itsasoa.
- 2010: zirkoa.
- 2009: Olinpiar Jokoak.
- 2008: xomorroak.
- 2007: Brasil.
- 2006: marrazki bizidunak.
- 2005: Usurbil, Oesteko herri.
- 2004: Hollywood.
- 2003: munduko kulturak.
- 2002: extralurtarrak.

Asanblada irekia eta bertso-bazkaria, Emakumeen Etxearen bueltan

Kalezarko Pelaiocenean kokatuko den Emakumeen Etxeko talde sustatzaileak, irekierara begira egitasmoa ahalik eta emakume gehienengana heltzeko asanblada irekia eta Martxoaren 8ari lotutako bertso-bazkaria antolatu ditu martxoaren 4rako.

“Azken hilabeteetan, Pelaiocenea barrutik eraikitzeko obrak martxan, proiektuaren inguruko lanketa zehatzagoa egiten aritu da talde sustatzailea, Elhuyarren laguntzarekin: etxeak emango dituen zerbitzuak, egin daitezkeen ekitaldi eta ikastaroak eta abar. Horien guztien berri emango dute martxoaren 4ko asanbladan. Obraren egoerak ahalbidetzen badu, eraikina barrutik ikusteko aukera ere izango da egun horretan”.



Talde sustatzailea Elhuyarrekin batera burutzen ari den lanketa aurkeztuko dute martxoaren 4ko asanbladan.

MARTXOAREN 4AN

“Obraren egoerak ahalbidetzen badu, eraikina barrutik ikusteko aukera ere izango da”

Martxoak 4, larunbata

■ 12:00 Emakumeen Etxeari lotutako asanblada irekia Potxoenean.

■ Izen-ematea aurrez, bideo-tatik:

943 377 110.

parekidetasuna1@usurbil.eus

■ Segidan, bertso-bazkaria Artzabalen. Parte hartzaileak: Maialen Lujanbio, Jone Uria eta Saioa Alkaiza. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

■ Sarrera aurrerago eskuragarri.

■ Antolatzailea: Emakumeen Etxeko talde sustatzailea.

Independentzia Egunerako txartelak Aitzagan salgai

Hilaren 28an Hernanin antolatu duten eskualde mailako bigarren Independentzia Egunerako zenbait ekitaldiarako txartelak Aitzagan eskura ditzakezue.

Urtarrilak 28, larunbata

■ 11:00 Hitzaldia Biterin: “Burujaitez mugari, independentziara bidean”.

■ 14:00 Herri bazkaria Atsegindegin (Txotx-a egongoda) + Mexikortxo.

■ 18:00 Manifestazioa Gudarien plazatik: “Bidea igarritik, independentziarantz!”.

■ 20:30 Kontzertuak Atsegindegin: Pleura, Arkada Social.

■ Ondoren, Dj Atxuak Razin Garinen.

■ Oharra: bazkaritarako (kamisetarekin) eta kontzertuetarako txartelak Aitzagan salgai.

■ Antolatzaileak: Buruntzaldeko LAB, Sortu eta Ernai.

Urtarrilaren 28an, Txirikordari buruzko informazio saioa

Ugartondon kokatuko den be-laualdiarteko etxebizitza komunitarioa irekitzetik hurbilago dagoen honetan, egitasmo honi buruzko informazio saioa antolatu du Usurbilgo Udalak, urtarrilaren 28an, 11:00etan Potxoenean.

Gonbidapena eskatu behar da

Ekitaldirako gonbidapenak aurrez eskuratu ahaliko dira usurbilkultura.eus plataforman.

Zalantzak argitzeko baliatuko dute bilkura hau Udalak berak eta egitasmo honen prozesua dinamizatu duen Hiritik At kooperatibak.

Hitzordu honen deitzaileak ohartarazi duenez, Txirikordan bizitzeko izen-ematea otsailean irekitzea aurreikusitako dute, urriko udalbatzarrean hasieraz onarturiko ordenantzari behin betiko onspena eman ostean.



Txirikordan bizitzeko izen-ematea otsailean irekitzea aurreikusitako dute.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Usurbil Döner Kebab USURBIL
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

GAR GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia, terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Bigarren eskuko Ford Focus Berlina Trend bost ateko ibilgailua salgai. Berria, zaindua, garajea egondakoa. 56.000 km. 125 zaldi. Gasolina. Aurreko bi gurpilak lau urtarotarako baliagarriak. 11.900 euro. 629 553 497 (Beatriz).

Gutxi erabilitako lau gurpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK Lan eskaintzak

Laukote okindegian langile bat behar dugu lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batenkin? Animatu eta deitu hona:

680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrik eman go dizkion pertsona baten bila gabilza. 608201745

Klase partikularrik emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udaregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzaile behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan zehar astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega ja-

tetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarik egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. Interesatua bazaude deitu 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest da goen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsalde zaurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrik emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Iratzi)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrik emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dit ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzainetan galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu 687 779 669 telefono zenbakira.



Zorionak Joanes!
Etxekoan partez, 5 muxu handi!



Zorionak Jon! Gure bihurri txikiak 3 urte betetzen ditu. Muxu handi bat potxolo!!



Zorionak Maddi!
Dagoeneko 6 urte beteko dituzu. Muxu pottolo bat etxekoan partez! Askok maite zaitugu!

Pilota partidak

Urtarrilak 20, ostirala
Aginagako frontoian:

Gipuzkoa errendimentua binaka:

■ Alebinak 2. Mailan: Pagazpe 1-Gazteleku 3

■ Infantilak 2. Mailan: Pagazpe-Oiarpe 1

Gipuzkoako udaberri txapelketa:

■ Kadeteak 2. Mailan: Pagazpe-Eple

Gomazko paleta Udaberri txapelketa:

■ Nagusiak 2. Mailan: Pagazpe-Gazteleku 1

Futbol partidak

Haranen:

Urtarrilak 21, larunbata

■ 10:00 Infantil mutilak: Usurbil FT-Orioko FT

■ 11:30 Kadete neskak: Usurbil FT-Hernani CD

■ 16:00 Preferente mutilak: Usurbil FT-Deusto

Haranetik kanpo:

Urtarrilak 21, larunbata

■ 9:45 Kadete preferenteak, Azpeitian: Lagun Onak B-Usurbil FT

■ 16:00 Preferente neskak, Seguran: Segura KE-Usurbil FT

Urtarrilak 22, igandea

■ 12:00 Infantil neskek, Donostiako Cesar Beniton: Intxaurdi A-Usurbil FT A

Heriotzak

Jesus Maria Olasagasti Intxausti



Urtarrilaren 14an hil zen, 65 urterekin.

Heriotzak

Juli Etxeberria-Berreyarza Zaldua



Urtarrilaren 16an hil zen, 90 urterekin.

Goardiako farmaziak

Osteguna 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9. Lasarte

Larunbata 21 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astlehena 23 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 24 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 25 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Osteguna 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 27 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 28 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 29 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Agenda urtarrila

19 osteguna

■ **Tailerra: "Arauk eta mugak familian. Nola ezarri modu asertibo batean".** 17:00etatik 19:00etara, Potxoenean. Izen-ematea: usurbilkultura.eus plataforman edo helbideotan: gaztelekuausurbil@gmail.com / hitzaho@udarregi.eus

21 larunbata

22 igandea

■ **Usurbilgo Odol-Emileen Eguna** Patri jattetxean. Bazkaritarako izena urtarrilaren 18a baino lehen eman behar zen.

Arauk eta mugak familia ereduaren erdigunean



Urtarrilaren 12ko hitzaldian guraso ugari batu ziren.

Familian egon beharko luketen arau eta mugez aritu ziren hizketan Gaztelekuak eta Hitz Aho guraso elkarteak antolatutako hitzaldian. Leyre Canoren gidaritzapean, dozenaka guraso eta hezitzaile elkartu ziren urtarrilaren 12an Potxoenean, modu asertibo eta osasungarrian familia ereduak garatzeko prestatutako tailerlean.

Familian harreman orekatua, osasungarria eta onuragarria izateko beharrezkoa den egitura nola izan landu zuten osteguneko tailerlean haur eta nerabeak dituzten gurasoek zein hezitzaileek, horretarako lagungarriak diren arauak eta mugak jartzen ikasiz. Zer diren mugak

eta zertarako balio duten aztertu zuten. Mugak beharrezkoak dira, baina modu asertiboak ezartzeak familia ereduaren onurak azpimarratu eta hori behar bezala egiteko tresnak eskaini zituzten bi orduko saioan.

Izena eman behar da alde zuretik

Saio horretan parte hartzeko aukerarik izan ez zutenek, ostegun honetan (hilak 19) 19an izango dute aukera, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Plazak mugatuak direnez, usurbilkultura.eus atarian edota gaztelekuausurbil@gmail.com eta hitzaho@udarregi.eus korreoen bidez izena eman beharko da alde zuretik.

Datozenak

"Zaharrak gara eta libre" solasaldia Potxoenean

Zaintza ekosistema eredu propioa eraikitzeko bidean, azaroaz geroztik abian den hitzaldi zikloaren baitan, "zaharrak gara eta libre" saioa antolatu dute Usurbilgo Udalak, Emaginek, Matiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, urtarrilaren 27an 18:00etan Potxoenean. Miren Aranguren (Emagin elkarte), Mari Luz Esteban (EHUko irakaslea) eta Ruth Iturbide (NUPeo irakaslea) izango dira hizlariak.

"Nola nahi dugu zahartu? Nola nahi dugu hil?"

Azken urteotan zahartzaroaren ikuspegi feministatik ekarpen oso esanguratsuak egin dira azken urteotan. Horretan ezinbesteko lana bilakatu da Mari Luz Estebanek argitaraturiko "Andrezaharren Manifestua". Esteban gonbidatuko dute solasaldira. Adinkeria eta adinkeria generoarekin nola gurutzatzen den ere aztertuko dute baita "horrekin zer ondorio dituen, zer zapalkuntza eta indarkeria adierazpen dituen". Izen-ematea:

- gizarte-zerbitzuak@usurbil.eus
- 943 377 110.
- usurbil.eus/zaintza-azoka

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 · komertzial instalazioak · beira bikoitza
 · segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
 · ispiuak · barandak · kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen
 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

noa.ua



Askorako eman dute 25 urtek. HERRIA Herritik egiteko bultzada 1996. urtean usurbildar askoren jaioren usurbildarren bihotzetik inplikazioari esker izugarrizko eta eskuz esku mantendu bultzada izan zuen Noaua da indar hau denbora guzti Kultur Elkartearen sorrerak. honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) HERRIA Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

40€
URTEAN

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!

25 € / URTEAN*
* 30 urte betetzean automatikoki bazkideza arrunta izatera pasako da

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaua Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdiko, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta altorpenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaría astero posta arruntez jaso aukera.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez
noa.ua.us/bazkideu



Telefonoz
943 360 321

Izena

Abizenak

Nortasun agiria

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefonoa

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia (IBAN)

Bazkideza mota

Arrunta (40 €)

<30 urte (25 €)

Jaiotze data

noa.ua.us

URDAIRA

Sagardotegia



AGINAGA
943 37 26 91

astelehenak itxita



OTSUA-ENEA

SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 7ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

www.iruinsegardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • **943 55 69 81**

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita



Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako saarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea

AIALDE
BERRI